

Great Smog: 1952ko laino hilgarria



ANDREW PETCHER



CRISIS PICTURES



GEO SCIENCE WORLD

Londresko kaleak duela 50 urte. Hiria laino artean ikustea ez da ezohikoa, baina 1952ko abendu hartan laino kutsatuak 4.000 pertsona hil zituen berehalakoan, eta hurrengo hilabeteetan kopurua 12.000ra iritsi zen.

LONDRES, 1952KO ABENDUA. Hilaren lehen egunetan laino trinkoak hiria hartu zuen. Horrek ez zituen herritarrak kezkatu, ohikoa baitzen. Baina laino itxiak ezauzgarri berezia zuen: hil egiten zuen.

Egun batzuk lehenago fronte hotz batek jo zuen Britainia Handia, eta hiriburuko biztanleak ohi baino ikatz gehiago erretzen hasi ziren etxeko goxotasuna atxikitzeko. Baina Bigarren Munduko Gerraren ondorioek gogor astindu zituzten herritar txirotuak. Hala, kalitate txarreko ikatz merkea erretzea beste aukerarik ez zuten. Ikatx hark sufre asko zuen eta ke lodi toxikoa botatzen zuen. Gainera, aire masa hotzak kea behera bultzatzen zuen, lurzorutik gertu burbuila modukoa eratuz. Biztanleek ikatza erre ahala, lainoa geroz eta ilunagoa, itxiagoa eta kirasdunagoa zen.

Lehen ageriko biktima garraioa izan zen, publikoa nahiz pribatua; sufre, artseniko, kadmio, nikel eta merkurio partikulek, besteak beste, ikuseremua asko murriztu zuten eta agintarietako trafikoa –lur gainekoa behintzat– eteteko erabakia hartu behar izan zuten.

Horrek ez zuen hiria geldiarazi, metroak martxan segitu baitzuten. Aire zabaleko kirol ekitaldiak ere bertan behera utzi zituzten hasieran, eta kea eraikinen barrualdean sartu ahala zine aretoak, antzokiak... ixten hasi ziren. Hala ere, izuak ez zituzten Londresko biztanleak hartu: lainoa hiriaren ikurra zen ia, eta iritsi bezala joango zen.

Great Smog edo Laino Handiak bost egun iraun zuen, abenduaren 5etik 9ra. Handik egun gutxira osasun zerbitzuek bildutako datuak izutzeko modukoak ziren: 4.000 pertsona hilda ziren ordurako, gehienak haur txikiak edo aurrez arnasketa arazoak zituzten helduak, batez ere arnas aparatuko infekzioek –bronkopneumoniak eta bronkitis akutua– eta arnasbideen buxadurak jota.

Hurrengo hilabeteetan beste 8.000 lagun hil ziren laino beltzaren ondorioz, eta 100.000 gaixotu. Laino Handiak kutsadura atmosferikoren eztabaida piztu zuen, eta handik gutxira airearen kutsadura murrizten ahalegintzeko lehen araudiak jarri ziren indarrean. ■



Arrastoak

Munduaren amaiera negozio

MAYAS 2010



HIL HONEN 21EAN ez da mundua amaituko, historialariek garbi adierazi baitute maien profezietan ez dagoela halakorik. Baina amaituko balitz, batzuk poltsikoak ederki beteta hilko liriteke. Babeslekuak eraikitzen dituen Northwest Shelter Systems enpresan enkarguek %70 egin dute gora aurten. Cancuneko hotelen ira-

baziak %9 igo dira krisialdi betean, eta abendurako %90etik gorako okupazioa dute ziurtatua. 21ean “azken afaria” Chichen Itzako ekitaldi berezian egin nahi dutenek 360 dolar ordainduko dute. Eta munduaren amaierarako propio sortu den 2012 Apocalypsis Insurance konpainiak ez die bezeroei sosik ordainduko. ■